



Amedo eta Dominguez akusatuen aulkian

Balsategik Monterori kontatu zion poliziek GALEkoak zirela ziotela

Muntaiaren usteari «iritzi publikoaren babesa bilatzeko saioa» zeritzon

Atzo deklaratu zuten Txema Montero abokatuaren esanetan, Inmaculada Gomezek eta Blanca Balsategik, biek adierazi zioten auziperatutako poliziek esan ziotela GALEko partaideak zirela, herenegun Balsategik aurkakoa aitortu bazuen ere. Defentsak Amedo eta Monteroren arteko bekaldura eskatu zuen arren, Auzitegiak ukatu egin zuen halakorik.

ZORION ZAMAKOLA
Berriemale berezia / MADRIL

HBko eurodiputatu ohiak deklaratu zuenez, Blanca Balsategirekin 1988aren hasieran bildu zen lehenengo, Gasteizko kafetegi batean, Inmaculada Gomez beraren despaxora joan eta hilabete eskasera eta honek lagundurik.

Monterok baietsi egin zuen Amedo eta Dominguezen bi amorante ohiak jakinean zeudela GALEko partaideak zirela, berauek halaxe adierazi ziotela esan ziotelako.

Balsategik Monterori kontatu zion berak ikusi zuela nola bi auziperatuek Inmaculada Gomezzen etxera eraman zuten uestezko lehergailua, eta are gehiago, GALaren anagrama ere ikusi zuela, agian Dominguezen eskutan.

Ildo beretik, Monterok azaldu zuen Inmaculada Gomezek kontatu zionaren arabera, egun batean Jose Amedo Fouce poliziak GALEko 'andere beltza' edo 'andere ilehoriaren' argazkiak erakutsi zizkiola, eta bat izan beharrean bi zirela azaldu.

Defentsako galderei erantzunez, Monterok berretsi egin zuen berak ez ziela polizien emaztegaiei eragin, eta berauek bere kabuz joan zirela bulegora.

Casado: Lana eta babesa eskaini zenion inoiz Inmaculadari?

Montero: Sekula ez.



Txema Montero abokatuaren deklarazioa ikusminaz jarraitu zen Auzitegi Nazionalean.

Casado: Amedok dio, Inmaculadarekin harremanetan jarri zinela exiliatutako ETAkide baten senide baten bidez, eta ez zuk diozun bezala, bera zure bulegora joan zelako.

Montero: Nik sekula ez nuen ikusi Inmaculada egun batean nire bulegoan agertu arte, eta inork ez zidan esan etortzekoa zenik. Ukatu egiten dut halakorik.

Casado: Era berean, Amedok dioenez, zuk ez zenuen gomendatu Inmaculada, eta zure helburua beraren inguruko pertsonen berri jasoztea zen.

Montero: Ez da egia, eta esan egin beharko du nor eta nola.

Casado: Amedok dio beraren aurkako salaketak zeuk asmatutako tramaren ondorio direla.

Montero: Nire uestez defentsa eginbide ahula litzateke, eta helburua HB sartzea barruan eta ni sasoi horretan HBko kide garrantzitsu bezala, agian iritzi publikoaren babesa bilatu asmoz, baina ez dago elementu objektiborik baieztape hori egiteko.

D: Amedok dio zuk kazetariak

erabili dituzula, lehen esan dizudan muntaiari kobertura emateko.

Montero: Gezurra da, argi eta garbi ukatzen dudalako nik inolako muntaiarik egin dudarik.

BEKALDURARIK EZ ZUTEN ONARTU

Puntu horretara iritsita, Amedoren zurrumurruek areagotu egin ziren eta epaileak isilik egon behararren derrigorra gogorazi zion poliziarri.

Casado defentsako abokatuak, orduan, Amedo auziperatua eta Monteroren arteko bekaldura eskatu zuen, bien artean kontraesan nabariak agertu direla argudiatuta.

Fiskalak eta salaketako abokatuak, berriz, ez zuten bekaldura hori emateko arrazoirik ikusi, puntu zehatzetan kontraesanik ez zelako eman, eta orokorrean 'muntaiak' horren inguruko eztabaida piztu nahi zela erantzun zuten. Galan Herri Ekimeneko abokatuak, zehazki, epaileari gogorarazi zion bekaldura «kontuz» erabiltzeko eginbidea zela, eta Estatuko Abokatuak, berriz, esan zuen bekalduraren beharra beti ere Epaimahaiak erabaki behar duela. Auzitegiak erabakia gainontzeko lekukoak deklaratu arte atzeratzea erabaki zuen eta ondoren, hogeitabost minutu luzez pentsatu ondoren, ukatu egin zuen bekaldura.

'QUINITO'-REN BERRI BALSATEGIK

Deklarazioaren beste une batean, Txema Monterok azaldu zuen Balsategik esan ziola Amedok konfidente bat zuela HB barruan, honek behin batean horixe adierazi ziolako.

Casado: Blancak komentatu zizun zerbait Ardantzarekin elkarriketatu ziren HBko kideei buruz?.

Montero: Bai, 1987ko azaroan edo abenduan Lugora egin zuten bidaia zela eta, Madril Lugorako bidean dagoen kafetegi batean gertuta, telebistan agertu zen Ardantza lehendakariak HBko kideekin izandako bileran. Orduan, Balsategik komentatu zidanez, Amedok esan zuen: «irteten ari den HBko partaideetako bat nire konfidentea da», une horretan hiru ari bait ziren irteten.

Amedo eskainiz tramaren hariak hautsi nahi zela susmatu zuen

ZORION ZAMAKOLA / MADRIL

Defentsako abokatuak galdetu zionean ea inoiz esan zuen Balsategiren eta Gomezzen deklarazioak entzunda «erreserba mentala» zuela, Monterok baietz erantzun zuen. Bere esanetan, abokatuak izanik eta aspalditik GALEkin lotzen den Brouard kasua ikertzen ari zela, «gauza harriagarria» iruditu zitzaion neska bat joatea bere bulegora. GALEko partaideak zen subkomisario baten neska zela esanez joan omen zen berarengana.

Halere, herri akusazioko abokatuaren galderei erantzunez, adierazpen horiek luzatu zituen. «Susmoak, zalantzarik gabe, zorrotasun profesionalaren ondorio izan ziren. 13 urtean nago defentsa eta salaketa pribatuak errotan, eta lekukotasunak eta frogak hartzeko orduan zorrotasun profesional handia exigitzen dut, nahiz eta agian beste profesional batzuek egin ez», azaldu zuen.

Mocrani uestezko GALKidearekin zuen harremanaz, Monterok azaldu zuen bere berrikeri bazueta baina ez

Amedoren jagoleak ez zuen indartu koartadarik

ZORION ZAMAKOLA / MADRIL

Amedoren jagolea izan zen Vicente Del Toro poliziak ezin izan zuen prozesatuaren koartadarik baietsi, lan horretan ihardun zuela onartuta ere, ez zuelako data bakar bat ere gogoratu.

Ildo horretatik, Del Torok esan zuen Amedo inoiz erotan zuela Madril, baina ez zuen datarik gogoratu. Blanca Balsategirekin bilduta ere ikusi zuen, baina halere bera aparte zegoela eta ezin zuen zehaztu zeren gainean egin zuten berba.

Amedoren laguna zela onartu zuen poliziak, eta Guadalajarako espetxera «askotan» joan dela bisitan.


Defentsako abokatuari erantzunez, Del Torok esan zuen bera Amedorekin egon zen artean, Virginia Llona zuela emaztega bezala eta berak ez zeukala Inmaculada Gomezzen berri. Halere, Castells salaketa pribatuko abokatuak galdetu zionean ea posible ote zen berarekin ez zegoen inorekin egotea baietz erantzun zuen.

Ondoren deklaratu zuten Joaquín Zalvez Soto eta Manuel García Ruiz polizien deklarazioak ere ez zuen gauza berrikeri ekarri. Amedo eta Dominguez uestez Portugalera joan zirenean Tuiko mugan iharduten zuten bi poliziek ez zuten polizietako bat ere ezagutu muga hori gurutzatuz zutenetakoen artean, baina erantsi zuten urtean zehar 8 milioi pertsona pasatzen direla muga horretatik.

Azkenik, Maite Arnaiz Fernandez kazetariak aitortu zuen laguntasuna zuela Amedorekin, «Bilboko zezen plazako lehendakari bezala, zezenketak kubritzen ditugun kazetari guztiok bezala».

zuela ezer egin bera aurkitzeko. Izan ere, behin batean bulegora deitu zion eta handik ordu t'erdira bildu egin ziren. Mocranik zenbait salaketa egin zituen Amedoren aurka eta txosten bat idatziko ziola agindu zion. Halere, txostena ez zen iritsi eta beste batean ere deitu egin zion Mocranik, berarekin egon eta azkenean txostena idatzi zion, baina ez bere aurrean. Monteroren esanetan, ez zuten berriz ikusi bekaldurarako deia egin zioten arte, eta ukatu egin zuen inolako presiorik egin zionik edota ordaindu zionik.

Monterok ukatu egin zuen Mocraniri inoiz esan zionik Amedoren burua nahi zuenik, gartzelan egon zedin, eta ezta Inmaculada Gomezere. «Inoiz ikusi dut nire ahotan ipini dela esaldi hau —esan zuen Monterok—. Esan nuena zera izan zen: orduan, eta orain berdin, inpresioa nuela Amedoren burua bandejan ipintzen zutela, bazeudela gertakizun batzuk niri pentsa erazten zidatenak norbaitek trama baten hariak hautsi eta Amedore burua eskaini nahi zutela, prozesalki berba eginda».



**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
ERREKTORREGOA**

LEHIAKETA PUBLIKOA

Euskal Herriko Unibertsitateko OHoko Irakaslegoaren-Eskoletako ikasleei (Bilbon, Donostrian eta Gasteizen) Euskarazko Ikastaro trinkoa 1991ko Iraila eta Urria artean emateko, Unibertsitate honek horretan ari diren eta interesaturik egon daitezkeen erakundeei dei hau luzatzen die, baldintza-pleguak Leioako Campuseko Argitarapen Zerbitzuan eskuratu ahal izanik. Proposamenak, 1991ko uztailaren 12ko 13.00 orduak baino lehen aurkeztu behar dira, Unibertsitate honetako Erregistro Orokorean.

EUSKARARAKO ERREKTORORDEA